



EEPren aurrekontuan emendatzerik ez, egoera gero eta kezkarriagoa

Euskararen Erakunde Publikoko biltzar nagusia apirilaren 8an bildu zen eta egun hartan Euskal Konfederazioko kideak bilkuran sartu ziren, present ziren ordezkariak proposatzen zitzaizkien aurrekontua ez zezatela bozka eskatzeko, ikusiz emendatzerik ez zela aurreikusten (aurrekontu berdina 2017tik), Euskal Konfederazioak euskalgintzako eragile nagusiei banatzen zaien dirulaguntza kopuruaren bikoiztea eskatzen zuelarik.

Ordezkariek aurrekontua hala ere bozkatu zuten baina egun hartan, bilkuratik ateratzean, EEPko lehendakariak berak aitortzen zuen instituzioen arteko solasa « porrot kolektiboa » izan zela, lau instituzioek ez baitzuten lortu ados jartzea aurrekontua emendatzeko (instituzio bakoitzak 1/4z osatu behar du aurrekontua).

Bestalde, « indar handiagoak » egin behar zirela eta « baliabiderik gabe ezin dela urrunago joan » gehitu zuen, jakinaraziz ere sei hilabeteko solasa hasiko zela « bakoitzak laguntza gehigarriak jar ditzan ».

Atzo urriaren 17an EEPko biltzar nagusia berriz bildu da eta ikusi dugun bezala Estatuak, Akitania Berriak, Departamenduak eta Euskal Elkargoak ez dute lortu ados jartzea EEPko aurrekontua emendatua izan dadin. Atzo EEP egitura urte batez bakarrik luzatzea erabaki dute, besteak beste aurrekontuaren inguruan posizio amankomuna lortzeko.

Euskal Konfederazioak baikor izaten segitu nahi du baina idekitzen den urte bateko fase horrek emaitza positiborik izanen ote du ikusten dugularik joan den urtean (2023ko urrian hasi zen) abiatu instituzioen arteko solasalditik deus ez dela atera?

Gaur egungo diru baliabideekin (eta planifikazio zehatzik gabe), EEPk ekainean aurkeztu prospekzio soziolinguistikoaren helburua (hots hemendik 2050era hiztun kopurua %30ekoa izatea, hots 40.000 euskaldun gehiago euskararen biziraupena segurtatzeko) ezingo da bete.

Eta anartean egunerokoan hiztunak sortzen eta euskararen erabilera areagotzen diharduten euskalgintzako elkarteek prekaritatean segituko dute lanean.

Euskal Konfederazioa erne egonen da eta zaintza lana egiten segituko du euskarak behar bezalako hizkuntza politika ukan arte.

Baiona, 2024ko urriaren 18a

Pas d'augmentation pour le budget de l'OPLB, la situation est de plus en plus critique

L'assemblée générale de l'Office Public de la Langue Basque s'était réunie le 8 avril dernier pour voter son budget. Les membres d'Euskal Konfederazioa avaient pénétré la salle de réunion pour demander aux représentant.es institutionnels présent.es de ne pas le voter, celui-ci ne prévoyant aucune augmentation (budget identique depuis 2017), alors qu'Euskal Konfederazioa demandait au minimum le doublement des subventions attribuées aux opérateurs linguistiques.

Le budget avait néanmoins été adopté, mais à la sortie de la réunion la présidente de l'OPLB avouait que la concertation inter-institutionnelle avait été "un échec collectif", ces institutions n'ayant pas réussi à se mettre d'accord quant à leur participation respective à la contribution socle de l'OPLB (chaque institution contribuant pour un quart du budget).

Par ailleurs, elle avait souligné qu'il fallait "faire plus d'efforts" et que "sans moyens supplémentaires il ne serait pas possible d'aller plus loin dans la politique linguistique", avant de rajouter qu'une nouvelle concertation de 6 mois serait mise en place "afin que chacun fasse une contribution complémentaire".

Hier, jeudi 17 octobre, l'assemblée générale s'est à nouveau réunie et nous avons pu constater que cette concertation n'avait pas abouti, l'État, la Nouvelle-Aquitaine, le Département et la Communauté d'Agglomération Pays Basque n'ayant pas réussi à se mettre d'accord. Hier, les partenaires institutionnels ont décidé de prolonguer l'outil EEP pour une seule année supplémentaire, le temps notamment de poursuivre cette concertation.

Euskal Konfederazioa souhaite reste optimiste mais cette concertation amènera-t-elle un résultat positif alors que le statut-quo demeure depuis plus d'un an (début de la concertation inter-institutionnelle en octobre 2023) ?

Avec des moyens actuels dérisoires l'objectif d'un taux de locuteurs de 30% à l'horizon 2050 (soit 40.000 bascophones supplémentaires, seuil minimum pour garantir la survie de la langue basque, chiffre présenté par l'OPLB dans son travail "perspectives sociolinguistiques" en juin dernier) ne pourra être atteint.

Et en attendant, les acteurs associatifs qui œuvrent à la formation de bascophones et au développement de la pratique de l'euskara au quotidien dans l'optique de l'objectif visé ci-dessus continueront d'évoluer dans la précarité.

Euskal Konfederazioa restera vigilante et continuera son travail de veille jusqu'à ce qu'une politique linguistique digne de ce nom soit mise en place.

Baiona, le 17 octobre 2024